# GEO ren Mundua

## INDONESIA



Indonesiako Sulawesin tradizio ukigabe bat gordetzen du Torajen tribuak, euren hilen aldeko hileta ikusgarri batzuen ospakizuna. Bai prestaerak bai ospakizunak asteak irauten dute. Familia noble batek dozenaka edo ehundaka bufalo sakrifikatu beharko ditu eta aldi baterako herrigunea eraiki milaka gonbidatuei ostatu emateko. Kostua izugarria da eta neurriz kanpokoa familien bizimodu ta erosahalmenarekin konparatuta, porrot eginda gera daitezkeelarik hiletak antolatuta.



Bertako toraja batzuk hirian bizi dira, jaioterritik urrun. Neurritasunez bizi dira han, ezin dute etxe modernorik eskuratu, ez oparirik egin, ezta oturuntz handirik ere, diru guztia aurreztu behar baitute errito arranditsuen ospakizunerako. Batzuetan, hildakoak momifikatuta egoten dira urteetan ahaideek dirua bildu arte hiletak ospatzeko. Adriana Bacriren gurasoak goi nobleziakoak dira, biak aldi berean hil dira herrian, eta horregatik berak hileta arranditsuak prestatu behar ditu orain, euren mailari dagokionez. Bere ekonomi arazo larriak gorabehera, Adrianak tradizioari eutsi beharko dio eta ehorzketa handia antolatu, prozesioekin, otoitzekin, xamanen kantikekin eta ehundaka bufaloren sakrifizioarekin. Erritoek hiru aste inguru irauten dute. Lehen egunean bi zezen sakrifikatzen dira. Horrela zenduaren arima bereizi egiten da bere gorputzetik, eta atseden lekurako bide luzeari ekiten dio. Erritoak gorpua hilobian ezartzean osatzen dira. Hildakoak burutu du beste mundurako bidaldia, biziek bitartean, Adrianak bezala, beren doluzko bidaia egin dutelarik, baita beren bizitza modernoaren eta arbasoen tradizioaren arteko gatazken muinera iritsi ere.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA

s.a.v.

ARGITARATZAI...
CAN BRUIXA, ...
08014 BARTZELO...

8 421466 507216
INDONESIA

© MCMXCV UFA non-Fiction Productions GmbH

ESPEDIENTE Zka: 55.939 Iraupena: 50' inguru. Jabea : S.A.V. Naziotasuna: Britainiarra Ekoizlea: Café Productions Ltd.
KALIFIKAZIOA: GUZTIENTZAKOA. ETXE ESPARRUA.

GEO ren Mundua
INDONESIA



Arimaren azken bidaia
INDONESIA

s.a.v.

# GEO ren Mundua




## INDONESIA

## Arimaren azken bidaia